

Onura ekonomikoa prozesu edo jarduera ekonomiko batetik lortutako etekinak izendatzeko erabiltzen den terminoa da, hots, izango ditugun irabazi iturriak. Hauek positiboak izan behar dira horretarako gure gastuak neurtu eta kontrolatu beharko ditugu. Izan ere, gastuak etekinak baino handiagoak badira ez dugu irabazirik izango eta beraz gure lana ez da produktiboa izango.

Argi dugu hau gerta daitekeela, azken finean enpresa batean gerta daitekeen errealitate bat delako eta kontuan izan beharreko puntu garrantzitsu bat da.

Horregatik, gure irabazi iturri nagusiak zeintzuk diren eta hauen nondik norakoak zeintzuk izango diren landuko dugu.

Elkarteko bazkideek hilero 150 euroko kuota bat ordaindu beharko dute. Ziurtatua dugu famili edo norbanakoak prest egongo direla hilero kuota hau ordaintzeko, izan ere, benetan baliagarriak izango zaizkien irtenbide eta aholkuak emango baititugu gure saio eta formakuntzetan. Estategiak emango dizkiegu, ariketa praktikoak izango ditugu, esperientziak eta joerak elkarbanatuko ditugu aurrez aurreko harremanari eutsiz adietuekin jardungo dugularik.

Irabazi iturriak bestelako etekinen bitartez lortuko ditugu. Izan ere, elkartean bururatu zaigu kamisetak, ur botilak, txapelak etab eskuz egitea, horrela urtean zehar gure lokalean saltzeko. Horrez gain, Durangoko azokara ere hurbilduko gara bertan postua jarriz eta eskuz egindako produktuak saltzeko asmoz bai eta aldi berean elkartea bera ezagunagoa egiteko ere. Halaber, youtube plataforma ondo joanez gero izan liteke diru kantitateren bat edo beste lortzea, nahiz eta aukera hau zailagoa sortatuko zaigun.

Halaber, elkartea aurrera joan heinean, eta ikusita funtzionatzen duela; gauza berriak atxikitzen joango gara, elkartea aberasteko, gehiago ezagutarazteko eta udalerrri ezberdinetatik hedatzen joateko ahal dugun neurrian.